

INGARTEKEKO EUSKARAREKIKO KONPROMISOA

Ingartek mugikortasuneko eta garraioko aholkularitza eta ingeniari bat da, 15 urtetik gorako esperientzia duen diziplina anitzeko talde batek eraturakoa. Hiri, administrazio publiko eta herritarrentzako irtenbide guztietan “**adimena mugimenduan**” eskaintzen dugu, garraioaren, zirkulazioaren, mugikortasunaren eta hiri-irisgarritasunaren kudeaketa optimizatze aldera, eraginkorragoak eta iraunkorragoak izan daitezen.

Bulegoak ditugu Bilbon eta Donostian, eta datuak informazio adimentsu bihurtzeko gaitasuna garatu dugu, mugikortasuna eta garraioa hobetzeko erabakiak hartzerakoan balioa ematen duena. **Azterketa matematikoetan, garapen teknologikoan eta soziologian** esperientzia bateratzen duen **diziplina anitzeko ikuspegiak eta taldeak** bereizten gaitu.

Ingarteken proiektuen garapena bereizten duen metodologia gure bezeroekin burututako talde-**lankidetzako** prozesu batetik hasten da. Prozesu horretan, konpondu beharreko arazoak **entzun** eta aztertzen dira. Guztiaren gainetik, Ingarteken irtenbideak planteatzen ditugu, gure ustez arazoa konpontzeko ondoen egokitzen dena proposatzeko **osotasunarekin**, egiten duguna betetzeko **konpromisoarekin** eta ematen ditugun irtenbideen gaineko **erantzukizunarekin**. Bizi garen gizartea hobetzeko **grinak** mugitzen gaitu, eta **ondo egindako** lana bilatzen dugu.

Ingarteken nahia da herritarrei haien joan-etorrietan mugikortasun handiagoa emango dien mundu bat lortzea. Gutako bakoitzak emandako ikuspegia aberasgarria da arrakasta bermatzeko eta proiektu bakoitzean emaitza onak lortzeko.

Gure egungo egoera kontuan izanda, hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatzeko beharra ikusi dugu, lekuan lekuko hizkuntzari tokia eginda eta horren erabilera sustatuz. Honela, euskara enpresaren eremu guztietan lan-hizkuntza (bai ahoz eta bai idatziz) bilakatzea lortu nahi dugu, bai eta eskaintzen ditugun zerbitzu guztietara zabaltzea ere. Ingartekek euskara eta gaztelaniaren arteko desorekak gainditzeko konpromisoa hartu du. Hori dela eta, euskararen normalizazioa erakundeko kudeaketa sisteman txertatzeko erabakia hartu zen, eraginkortasunez hedatu eta jarraipena egiteko.

Hona hemen euskara eguneroko lanean integratzeko Ingarteken arrazoieta batzuk:

1. Kalitatezko zerbitzua emateko eta bezeroen hizkuntza-beharrak asetzeko nahia.
2. Gizarte erantzukizuna, hizkuntza aniztasunaren errespetuan gizartean egindako aurrerapenekin bat etorriz, eta gizabanakoen hizkuntza-eskubideak eta gure inguruan sustraitzeko nahia betez.
3. Zerbitzua soilik euskaraz jasotzeko gizartearen eskaera gero eta handiagoari aurre egitea.

Horiei guztiei erantzuna emateko, Ingarteken Hizkuntza politika eguneratzen ari gara eta, horretarako, euskara plana abian jarri dugu. Politikaren bidez, erakundearen hizkuntza irizpideak, protokoloak eta prozedurak bideratzeko konpromisoak hartu ditugu. Era berean, euskara planak barne hartzen dituen baliabideak eta prozedurak lantzen jarraituko dugu, euskaraz lan egiteko eta zerbitzuak euskaraz eskaintzeko tresnak edukitzeko beharrezkoak baitira.

